

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2021eko URTARRILAREN 28ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
TELEMATIKOKI EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2021eko urtarrilaren 28an, arratsaldeko 15.30 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakartzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira, telematikoki eginiko bilkura honetan.

**ZINEGOTZIAK:**

Vicente Garcia Momblona  
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez  
Mireia Ruiz Delgado  
Jesus Maria Tejada Cantero  
*Aitor Beistegui Fiallegas zinegotzia*


BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Maialen Alonso Labandibar.

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:  
➤ 2020ko abenduaren 21ean egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 21 de diciembre de 2021.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Oroimen historikoa, "Saseta gazte auzolandegia 2020" proiektua dela eta Adunako udalari dagokion ekarpena burutzea./ Aportación económica al Ayuntamiento de Aduna por la ejecución del proyecto de memoria histórica "Saseta gazte auzolandegia 2020".**
- 5. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari, Gaztematika-ri atxikimendua./ Adhesión a la Red Interinstitucional de Promoción de la infancia y la Juventud del Territorio Histórico de Gipuzkoa, Gaztematica.**
- 6. Eudel-ek eginiko gomendioaren onespina, 2021eko ekitaldirako langileen ordain sariei buruzkoa, hala bada/ Aprobación de la recomendación realizada por Eudel, en relación a los incrementos retributivos del ejercicio 2021.**
- 7. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2021eko 1. Eta 2. Hiruhilabeteko ekarpenak burutzea, hala bada./ Aportación**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**económica a Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea  
correspondiente al 1. y 2. Trimestre del ejercicio 2021.**

**8. Beste batzuk/Otros.**

**9. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO**

- 2020 urteko abenduaren 21ean egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.

### **BIGARRENGO PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**


Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 154/2020tik 163/2020ra eta 1/2021etik 7/2021era Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **HIRUGARRENGO PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

DIGITARTE	128,87
SANIPLAST	253,24
IRAITZ LIZARRAGA	206,00
VEDISCOBA	217,80
MELLIFERA	945,52
ERROITZ	119,16
BERRI LANTEGIA	180,25
EBA ERKIZIA	693,41
CORREOS	4,60
MONTTE	70,20
KIROLZER	22,85
ORONA	404,89
ZU ETA BIOD	1.178,17
SETALDE	201,50
LIZARRA	300,14
GRENKE	129,41
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	4.044,74
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	595,59
IBERDROLA	240,90



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

IBERDROLA	75,92
IBERDROLA	237,14
IBERDROLA	29,09
IBERDROLA	171,95
MOVISTAR	183,13
MOVISTAR	97,41

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **10.731,88** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

*Aitor Beistegi zinegotzia, 15:43 ordutan bertaratzen da bilkura honetara.*

### **LAUGARRENGO PUNTUA**

### **OROIMEN HISTORIKOA, “SASETA GAZTE AUZOLANDEGIA 2020” PROIEKTUA DELA ETA ADUNAKO UDALARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA**

Ikusita Aduna, Zizurkil, Larraul eta Asteasuko Udalek “SASETA GAZTE AUZOLANDEGIA. OROIMEN HISTORIKOA BERRESKURATZEKO PROIEKTUA” 2020-an garatu dutela.

Ikusirik, Adunako Udalak, aipaturiko proiektua garatzeak suposatu dion gastuaren kitapena jakinarazi diola Larraul, Asteasu eta Zizurkilgo Udalei.


Ikusita Saseta gazte auzolandegia 2020 proiektuak Larraulgo Udalari 1.000,00 eurotako gastu bat supostu diola.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, honako hau

ERABAKITZEN DU:

**LEHENA:** Adunako Udalari, 1.000,00eurotako ekarpen bat egitea, Saseta gazte auzolandegia 2020 proiektua gauzatzeagatik.

**BIGARRENA:** 1.000,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, 2020ko aurrekontuetako 643.336.00.01 “Indusketak” partidaren kontura.



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**BOSTGARREN PUNTUA**

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HAUR ETA GAZTEEN  
SUSTAPENERAKO ERAKUNDEARTEKO SAREARI, GAZTEMATIKA-ri  
ATXIKIMENDUA**

Ikusirik Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak eta lurraldeko udaletako haur, nerabe eta gazteen sustapen-atalek, Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Erakunde arteko Sarea (Gaztematika) osatzen dutela. Bertan, lanean dihardute herrietako haur eta gazteei zerbitzu publikoak eskaintzeko eta, besteak beste, beren garapen integrala, herritartasuna, balore hezitzaileak eta emantzipazioa eskuratzen laguntzeko.

Gaztematika sarearen bitartez, bertako kide diren erakundeek hainbat onura jasotzen dituzte guztiek egindako lanaren ondorioz: lanerako erreferentziazko marko bat, diru-laguntzak, eztabaidarako eta elkarrizketarako guneak, baliabide, gaitasun eta prozesu bateratuak, aholkularitza teknikoa eta bide-laguntza, lurralde mailako plan komun bat, arloari buruzko ezagutza, jakintza eta prestakuntza, lurralde mailako programak, proiektuak eta kanpainak herrian ezartzeko aukera, eta abar.

2018ra arte, udalak Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmen bitartez atxikitzen zitzaizkion Gaztematikari. Iaz, ordea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakunde arteko Sarea sortzeari buruzko Dekretua onartu zen. Horren arabera, aurrerantzean udalek sareari atxikimendua eman behar diote bertako kide izateko. Izapide hori dagokionez, derrigorrezkoa ez izan arren, udalbatzak onartzea eskertuko da.

Ikusita, Larraulgo Udalak interesa duela Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen sustapenerako Erakundearteko Sareari, hau da, Gaztematikari atxikitzea.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

**ERABAKITZEN DU:**

**LEHENA:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen sustapenerako Erakundearteko Sareari, hau da, Gaztematikari atxikitzea, dagokion hitzarmena onartuaz.

**BIGARRENA:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen sustapenerako Erakundearteko Sareari, hau da, Gaztematikari atxikitzeko beharrezko izapideak egin daitezen onartzea.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol departamentuari ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**SEIGARREN PUNTUA**

**EUDEL-ek EGINIKO GOMENDIOAREN ONESPENA, 2021eko EKITALDIRAKO LANGILEEN ORDAIN SARIEI BURUZKOA, HALA BADA**

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendia, non ondorengoa dioen:

**“ 2021eko ordainsari-igoerei buruzko informazio-zirkularra**

Joan den 2020/12/31n, Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legea argitaratu zen BOEn.

Lege horrek, III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2021eko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, eta honako hau arautzen du:

***18. artikulua. Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuen arloan.***


***(...)Bi. 2021. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariek ezin izango dute ehuneko 0,9ko igoera baino handiagoa izan 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzinatasunari dagokienez, alderaketaren bi aldietarako homogeneousotasuna mantenduz. Gizarte-ekintzako gastuak, oro har, ezin izango dira handitu 2020koen aldean. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanagatiko kontraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea helburu dutenak.***

Aurrekoa ikusita, abenduaren 30eko 11/2020 Legea indarrean sartu ondoren, eta Eudelek aurreko ekitaldietako ordainsari-igoerei dagokienez egin duen bezala, egin ditzakeen interpretazioak argitze aldera, egokitze jotzen da euskal udalei honako hau egitea:

## **GOMENDIOA**

**11/2020 Legearen 18 Bi artikuluen edukiari dagokionez, Eudelek gomendatzen du sektore publikoko langileen ordainsariak handitzea, 2021/01/01etik aurrerako ondorioekin, legez onartutako gehienekoa, hau da, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko % 0,9, konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzinatasunari dagokionez, homogeneousotasuna mantenduz.**

Gomendio horren bidez, Eudelek lege-agindu horren irismen juridikoa argitu nahi du, eta horrek guztiak negoziazio kolektiboaren esparruan etorkizunean



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

aurrera egiteko bidea erraztuko duelakoan, UDALHITZ Akordio arautzaile berri bat lortu ahal izateko.

Era berean, EUDELeK berretsi du garrantzitsua dela "UDALHITZ 2008-2010 Akordioa" bere terminoetan betetzea, lortutako akordioak benetan betetzean baitago haren berme nagusia, eta, gainera, sektoreko akordio berri bat lortzeko legitimazio gisa balio du. Ildo horretan, gaur egungo UDALHITZ 2008-2010 betetzeak izan ditzakeen hutsuneak konpontzeko tresnak, azken zirkularretan gogorarazi dizuegun bezala, erakunde bakoitzean gaitutako "jarraipen-mahaiak" izan beharko luke. Gogorarazten dizuegu mahai hauen xedea dela, soil-soilik, egungo UDALHITZ 2008-2010 Akordioan gerta daitezkeen balizko ez-betetze puntualak konpontzeko akordioak erraztea, eta ez dutela ireki behar kanpoko gai ei buruzko edozein negoziazio-prozesu, zeinaren aplikazio-eremua EUDELen eta sindikatuen arteko UDALHITZ Negoziazio Mahai Orokorrean dagoen. “

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2021 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioa bere osotasunean onestea eta aplikatzea. Hau da:

**11/2020 Legearen 18 Bi artikulua ren edukiari dagokionez, Eudelek gomendatzen du sektore publikoko langileen ordainsariak handitzea, 2021/01/01etik aurrerako ondorioekin, legez onartutako gehienekoa, hau da, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko % 0,9, konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokionez, homogeneotasuna mantenduz.**


### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

### **AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2021EKO 1.ETA 2. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik 2021eko urtarrilaren 25ean Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2021 ekitaldirako 1. eta 2. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 12.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Larraulgo udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

-Gizarte zerbitzuak: 10.000,00 euro

-Kultura: 2.000,00 euro



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela 2021 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partidetan.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 12.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2021 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. 2021 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partiden kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 10.000,00 euro
- Kultura: 2.000,00 euro

BIGARRENA.- 12.000,00 eurotako gastua onartzea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**


#### **9.1.LARRAULGO UDALAK AURKEZTURIKO “LARRAULGO ESKOLA, ESKOLA TXIKIA ETA PUBLIKOA IZATEKO ALDARRIKAPENA” ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONESTEA**

Ikusirik, PSOE Taldeak aurkezturiko Larraulgo eskola, eskola txikia eta publikoa izateko aldarrikapena, adierazpen instituzionala. Non ondorengoa dioen:

*“Amaia Urzelai, Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde ordezkariari.*

*Larraulgo eskolako komunitateak, idatzi honen bidez, bilera eskaera bat luzatu nahi dizu eskolaren egoeraren inguruan hitz egiteko, bertara eskolaren ingurumarian dabiltzan pertsona ezberdinak gonbidatuz.*

*Larraulek herrian eskola izan du 100 urtetan zehar (XIX. Mendetik); izatez, bi eskola ere izan ziren herrian, bata herri kaxkoan, eta bestea Andazarrate inguruko ikasleentzat. 1977. urtean itxi zen eskola, eta 80ko hamarkadan demografiak beherako joera hartu zuen. Egoera ikusirik, udalak populazioa hazteko apustua egin zuen, eta, orduan jada, planteatzen hasi zen bertako eskola berriz irekitzeko beharra. Etxebizitza berriak egin eta biztanleria 250*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ingurura igo zelarik, 2008an jarri zen berriro martxan eskola zerbitzua, ez eskola izaerarekin, ordea.

Lan gogorra egin behar izan zen eskola zerbitzua berriro ere martxan jartzeko, eta eskola izateko baldintza guztiak betetzen baziren ere, Asteasuko Pello Errota ikastetxearen gela desplazatu gisa aritzeko baimena eskuratu zen Eusko Jaurlaritzatik. Ez zen eskatzen zena, baina zerbitzua lehenetsi zen guztiaren gainetik, herriko haurrek herrian ikasteak zituen abantailak lehen lerroan jarriz. 13 ikasturte igaro dira ordutik, eta beraz, etorkizuna bazela agerikoa izan da.

Egun, eskolak bere horretan dirau, bizirik, bizi-bizirik; eta herriarentzat erreferentzia gune nagusi izateaz gain, pedagogikoki ere badu zer esana. Baina gela desplazatu izaten jarraitzen du, horrek ondorioztatzen dituen muga guztiakin. Batzuk zerrendatzearren...

- Zuzendaritza proiektua aurkezteko ezina
- Eskolarako proiektu integralak aurkezteko ezina edo zailtasunak: digitalizaziorako sare hezkuntza, steam proiektuak, hezkidetza...
- Hezkuntza aplikazioen kudeaketa eta Pello Errota ikastetxearekin koordinatu beharra.
- RPT-aren kudeaketa.
- Larraulgo eskolak kudeaketa ekonomikoa egiteko zailtasuna.

13 urteko ibilbidearen ostean, beste pauso bat emateko momentu egokia dela deritzogu, eta beraz, berriro ere, eskola izatea aldarrikatu nahi dugu, txikitasunaren handitasuna balorean jarriz. "Bidean" egitasmo izena jarri diote Larraulen aritzen diren irakasleek euren proiektuari, bidea egiten ari baitira. Baina bidea egiten jarraitzeko beharrezkoa da izate bat, estatus bat. Horixe da aldarrikatu nahi duguna.

Matrikulazio kanpaina abiatzear den honetan, Larraulgo gela desplazatuak dituen aurreikuspenak oso onak dira, haur eskola zabalik da berriro, guraso eta udalaren arteko hartu-eman estuen seinale, eta inoiz baino gehiago izan dira Larraulen ikasi eta hezteko interesa agertu duten familiak.


Ikusteko moduko eskola da Larraulgoa, 2-12 urteko ikasleak elkarrekin eta elkarreaginean aritzen direlarik. Agian horregatik izan ohi ditu bisita ugari, ikasleak, adina dena-delarik ere, tailerretan lanean ikusteak asko eta asko uzten baititu aho bete hortz.

Harrotasunez, baina harrokeriarik gabe, Larraulgo eskola aldarrikatu nahi dugu, Eskola Txikiaren eta publikotasunaren indarra balorean jarriz. 13 ikasturteren ondoren, Larraulgo herriak merezi du.

Gure eskaera kontuan hartuko duzulakoan, aldeztatik, mila esker."

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: PSOE Taldeak aurkezturiko “Larraulgo eskola, eskola txikia eta publikoa izateko aldarrikapena”, adierazpen instituzionala bere osotasunean onestea.

BIGARRENA: Adierazpen instituzional honen berri, Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde ordezkariari ematea.

*Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 16:05 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*